- Zentro berezirik egotea ala ez. Legeak ez bereizteko planteamendua du, esku-hartze integratuaren eredu bati jarraiki. Gizatalde edo zentro-moten arabera bereizten ez diren arreta eta jarduera proposatzen ditu.
- Arlo hauetan diharduten profesionalak. Erakunde pribatuekin egiten dituzten lankidetza-itunetan, Administrazio Publikoek zainduko dute haur eta nerabeekin diharduten langileak egokiak izatea egiten dituzten zereginetarako. Era berean, zainduko dute langile horien lan-baldintzak been zereginei aplikatu beharreko araudira egokitzea.

Bestalde, ondokoa ezarri da: arriskuaren edo babesgabetasunaren arloan zein babesaren arloan esku hartzen duten profesionalek eskatu ahal izango diote fiskal eskudunari prozeduretan esku hartu ahal izateko, anonimatua gordeta, identifikazio-kode baten bitartez. Aldundiek uste dute zati batean baino ez dela kontuan hartu beren eskaera.

Kulturen arteko harremanak sustatzeari buruzko puntuan ere iritzi kontrajarriak izan dira, herri pobretuetatik edo gerran daudenetatik datozen haurren egonaldiei buruz alegia.

voto favorable al texto. Si como afirman las Diputaciones Forales, este texto supone un avance respecto al que se remitió años atrás a la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco por parte del Departamento de Justicia, y lo mejora considerablemente, no se alcanza entender, porqué entonces votaron a favor y lo hacen ahora en contra.

Rigoberto Jara, de "Harresiak Apurtuz", considera que la problemática de los menores extranjeros no acompañados es muy compleja (breve exposición de Loiu y Orduña...). Opina que la Comisión Permanente Sectorial debe abordar esta problemática y buscar soluciones integradas.
Concluye que la Ley es buena y se ajusta a las necesidades actuales.

María Racero, de la Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos (Fedeafes), valora positivamente el texto si bien condiciona esta lectura a la argumentación de las diferencias que realicen las Diputaciones Forales.

Iratxe Landeta, de la Diputación Foral de Bizkaia, concluye que la disposición normativa es buena pero las Diputaciones Forales querrían cerrar esos "flecos" que quedan. Efectivamente, en 1999 se cerró un texto legal que luego por determinadas razones se vuelve a abrir.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, explica a los presentes que efectivamente los puntos en desacuerdo son puntuales pero algunos son de calado y estriban en:

- La existencia o no de centros especiales. La Ley realiza un planteamiento no diferenciador, siguiendo un modelo de intervención integrado. Propone formas de atención y actuación no diferenciadas por colectivos o tipos de centros.
- Los profesionales que actúan en estos ámbitos. En el marco de los acuerdos de colaboración con entidades privadas, las Administraciones Públicas velarán, por que el personal profesional que intervenga en la atención a niños, niñas y adolescentes sea el idóneo para el desempeño de las funciones que desarrolla y por que las condiciones laborales de estos profesionales se enmarquen en la legalidad aplicable a su función profesional.

En otro orden de cosas, se establece que los profesionales que intervengan, bien desde el ámbito de riesgo o desamparo, bien desde el ámbito de la protección, podrán solicitar al fiscal competente la autorización de intervenir en los procedimientos conservando el anonimato, mediante la utilización de un código de identificación. Las Diputaciones consideran atendida su petición sólo en parte.

También se ha discrepado en el apartado relativo al fomento de las relaciones interculturales, y en particular sobre la estancia temporal de niños y niñas provinientes de países pobres o en conflicto.

Adingabearen telefonoa. Sail honi dagokio informazioa eta orientabidea emateko zerbitzu bat sortzea. Zerbitzuak telefono edo ordenagailuaren bidez harremanetan jartzeko doako sistema izango du, eta adingabe guztiek erabili ahal izango lukete, edozein arazo pertsonal edo soziala dela-eta aholkua eta laguntza eskatzeko.

El teléfono del menor. Corresponde a este Departamento la creación de un servicio de servicio de información y orientación, dotado de un sistema gratuito de contacto telefónico o electrónico, al que podrán recurrir todas las personas menores de edad que, por cualquier circunstancia personal o social, requirieran asesoramiento y apoyo.

Haurrei aitortzen zaizkien eskubideen erabileraren eta titularitatearen ondoriozko behar, obligazio eta erantzukizunei dagokienez, oso orokorra den artikulua bat sartu da. Aldundien ustez, oso laburra da eta araudi zehatzago bat eskatu dute.

Respecto de los deberes, obligaciones y responsabilidades inherentes o consecuentes de la titularidad y el ejercicio de los derechos que les son reconocidos a niñas y niños, se introduce un artículo con un tenor muy genérico. Las Diputaciones lo consideran muy escueto y proponen una regulación más detallada.

Arriskuaren eta babesgabetasunaren egoerak zehazteari dagokionez, Lehen Xedapen Iragankorrak urtebeteko epea ezarri du Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek oinarrizko tresna bat egin eta onartzeko, babesgabetasunaren egoeren larritasuna zehazteko eta definitzeko ea arrisku txikia, larria edo babesgabetasunaren egoera suposatzen duten. Hala ere, Foru Aldundiek, haur eta nerabeen babesaren eskumena duten aldetik, garatu ahal izango dute tresna hori, errealitatera ahalik eta ondoen egokitzeko. Era berean, balorazio eta komunikazio protokoloak diseinatuko dira, administrazioen jardueren koordinazioa arintzeko.

Respecto a la delimitación de las situaciones de riesgo y desamparo, la Disposición Transitoria 1ª establece un plazo de 1 año para que el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos elaboren y aprueben un instrumento básico para determinar la gravedad de las situaciones de desprotección y definir si constituyen una situación de riesgo leve o moderado, una situación de riesgo grave o una situación de desamparo. Lo anterior se entenderá sin perjuicio de que cada Diputación Foral, en su calidad de entidad competente en materia de protección a la infancia y a la adolescencia, pueda desarrollar dicho instrumento de la forma que mejor se adecue a su realidad. Así mismo, se diseñarán los protocolos de valoración y comunicación que permitan agilizar la coordinación de las actuaciones administrativas.

Aldundien iritziz, haiek dira, Udalekin batera, balorazio irizpideak egin behar dituztenak, baita egoera hauen aplikazio-protokoloak ere.

Las Diputaciones consideran que son ellas, junto con los Ayuntamientos, quienes deben elaborar los criterios de valoración así como los protocolos de aplicación de estas situaciones.

Adingabeen arloko eskumena duen Administrazio Publikoak espedientea hastean, zuzenean entzun beharko dio haurrari edo nerabeari, edo, hark behar besteko adimena ez duenean, izendatzen den bere ordezkariari. Foru Aldundien iritziz, batez ere 16 urte baino gehiago dutenen iritzia hartu behar da kontuan.

En el momento en que la Administración Pública competente en materia de protección de menores inicie un expediente, oirá al niño, niña o adolescente directamente o a través de la persona que designe para que le represente, cuando tenga suficiente juicio. En opinión de las Diputaciones Forales se debe tener en cuenta, especialmente, la opinión del mayor de 16 años.

Babesgabetasunean dauden haurrak eta nerabeak tutoretzapean zaintzeaz gain, Babesaren eskumena duen Administrazio Publikoak haurrak eta nerabeak zaindu ahal izango ditu, baldin eta beren guraso edo tutoreek egoera larrian egon eta ezin badituzte zaindu. Era berean, zaintzeaz arduratuko da Epaileak hala erabakitzen duenean, legez hala badagokiolako. Aldundiek adierazi dute komenigarria dela ondokoa zehaztea: zaintzarako gurasoek egiten duten eskabidea bakarrik hatuko da kontuan adingabeen babesgabetasuna gurasoen erruarengatik denean eta ez haurren erruarengatik.

Además de la guarda de los niños, niñas y adolescentes tutelados por encontrarse en situación de desamparo, la Administración Pública competente en materia de protección podrá asumir temporalmente la guarda de los niños, niñas y adolescentes cuando los padres o tutores, por circunstancias graves, no puedan cuidar de ellos. Así mismo, asumirá la guarda cuando así lo acuerde el Juez en los casos en que legalmente proceda. Las Diputaciones consideran que se debería precisar que la guarda a solicitud de los padres sólo se aceptará cuando la desprotección del menor sea imputable a los propios padres y no a los hijos.

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren barruan Batzorde Iraunkor Sektorial bat eratuko da Haur eta Nerabeen Arretarako. Batzorde hori foro berezia izango da erakunde publikoek eta haur eta nerabeen arretan diharduten gizarte-eragileek parte hartzeko. Foru Aldundiek zalantzan jarri dute batzorde horren sorrera.

En el seno del Consejo Vasco de Bienestar Social se constituirá una Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y a la Adolescencia como foro específico de participación de las instituciones públicas y de los agentes sociales implicados en la atención a la infancia y a la adolescencia. Las Diputaciones Forales cuestionan su creación.

Lege hau garatu eta aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzak badu eskumena nazioarteko adopzioa sustatzeko jarduereetan. Foru Aldundiek planteatu dute atal hori ezabatzea.

El Gobierno Vasco, tiene atribuidas, para el desarrollo y aplicación de esta Ley, actuaciones de promoción de la adopción internacional. Las Diputaciones Forales plantean la supresión de esta apartado.

Laburbilduz, Foru Aldundien proposamen guztiak kontuan hartu ez badira ere, aurkeztutakoen %75-80 jaso dira.

En definitiva, si bien no se han tomado en consideración todas las propuestas de las Diputaciones Forales, sí se han recogido del 75 al 80% de las presentadas.

*5. puntua- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Familia Arloan instituzio-antolamendua arautzen duen Aginduaren buruzko informazioa.*

*Punto 5.- Información de la Orden por la que se regula la organización institucional en el Área de Familia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

Gizarteratze zuzendaria den Montserrat Rejadok eman du puntu honi buruzko informazioa. Instituzioen arteko lankidetza bi batzorderen bitartez antolatu da:

- Familiaren Batzorde Iraunkorra. Instituzio Publikoen era gizarte eragileen partaidetza foroa litzateke, eta familiei laguntzeko instituzioen arteko Planari buruzko xedapenez kontsulta egitek organoa.
- Familiaren Instituzioen arteko Batzordea. Familia arloan, instituzioen arteko lankidetzarako eta parte-hartzerako organo gorena litzateke.

Montserrat Rejado, Directora de Inserción Social, informa sobre este punto. La colaboración interinstitucional se articula mediante la creación de dos Comisiones:

- La Comisión Permanente de Familia, que actuaría como foro de participación de las Instituciones Públicas y de los agentes sociales y como órgano de consulta de las disposiciones relativas al Plan Interinstitucional de apoyo a las familias.
- La Comisión Interinstitucional de Familia, que actuaría como máximo órgano de colaboración y participación de las distintas instituciones en materia de familia.

Familiaren Batzorde Iraunkor Sektorialaren osaera paritarioa litzateke Foru Aldundietako eta gizarte-erakundeetako ordezkariei dagokionez (alde bakoitzeko bederatzi).

La composición de la Comisión Permanente Sectorial de Familia será paritaria entre los representantes de las distintas Diputaciones Forales y de las organizaciones sociales (nueve por cada una de las partes).

EUDELeko Dorleta Goiburuk eskatu du 3.1 a) eta 8.1 c) puntuetan txertatutakoa ezabatzeko ("Autonomia Erkidegoan dauden Udal-motak islatzen saiatuz"). EUDELi dagokio ordezkaritza hori zein udali dagokien erabakitzea.

Dorleta Goiburu, de EUDEL, solicita en este punto la supresión del último inciso de los artículos 3.1 a) y 8.1 c). ("procurando reflejar los distintos tipos de municipios que existen en la Comunidad Autónoma"). Corresponde a EUDEL, la capacidad de designar a qué municipios corresponde esta representación.

Proposamena onartu da.

Se acepta la propuesta.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Ruiz Ungok zalantzan jarri du Familiaren Batzorde Iraunkor Sektorialerako aurreikusitako osaera. Bere iritziz, foro horietan instituzioen arteko gatazkak konpontzen ez direnez, euskal udalen ordezkaritza handiago plantea liteke, edo Foru Aldundien arteko txandakatzea ordezkaritzan, edo sindikatuek ere parte hartzea.

Blanca Ruiz Ungo, del Centro de Información de la Mujer, del Niño y la Niña, pone en cuestión la composición prevista para la Comisión Permanente Sectorial de Familia. En su opinión, a la vista de que en estos foros no se dirimen los conflictos interinstitucionales existentes, podría plantearse una mayor representatividad de los municipios vascos, una rotación en la representatividad de las Diputaciones

Forales, o la inclusión de la parte sindical.

CCOO eta LAB ere azken eskaera honen alde agertu dira.

A esta última petición, se suman las representantes de CCOO y LAB.

Comisiones Obreras sindikatuko Felisa Piedrak gaineratu du baliabideak xahutzea dela bi batzorde eratzea. Funtzio exekutiboak dituen batzorde bat eratzea proposatu du.

Felisa Piedra, del Sindicato de Comisiones Obreras, añade además que considera un derroche de recursos la constitución de dos comisiones. Plantea la posibilidad de una única comisión con funciones ejecutivas.

Gizarteratze Zuzendaritzako Montserrat Rejadok jakinarazi du bi batzorde eratzen direla familiei laguntzeko Instituzioen arteko Planak hala ezarri duelako.

Montserrat Rejado, de la Dirección de Inserción Social, afirma que se constituyen dos comisiones por imperativo del Plan Interinstitucional de Apoyo a las familias.

Arabako Foru Aldundiko Patxi Sandínek adierazi du Batzorde horien egituratzea aldatuz gero, gainerakoetan ere egin beharko dela.

Patxi Sandín, de la Diputación Foral de Álava, afirma que de modificarse la configuración de estas Comisiones, la misma ha de ser trasladable al resto de Comisiones.

Azkenik, Aginduaren informazioa modu positiboan emanda, eta Gizarteratze zuzendariak konpromisoa hartu du sindikatuen arteko txandakatze-formula bat bilatzeko.

Finalmente, se da por informada favorablemente la Orden y la Directora de Inserción Social se compromete a intentar buscar una fórmula de rotación para la parte sindical.

*3. puntua- Pasadizokoen eta sabairik gabekoen Batzorde Iraunkor Sektorialaren sorrerari buruzko informazioa.*

*Punto 3.- Información de la creación de la Comisión Permanente Sectorial de personas transeúntes y sin techo.*

Gizarte Ongizateko zuzendaria den Ángel Bao Pérezek Batzordea eratzeko arrazoiak azaldu ditu, eta adierazi du gai hau lehentasunezkoa dela gizarte ikuspuntutik.

Ángel Bao Pérez, Director de Bienestar Social, expone las razones para la constitución de esta Comisión y califica este tema de prioritario desde el punto de vista social.

Batzorde Iraunkor Sektorial guztien moduan, paritarioa izan behar du. Instituzioen ordezkaritza honela planteatzen da: Foru Aldundiak (3 partaide), EUDEL, Osasuna, Inmigrazioa, Etxebizitza eta Gizarteratzea. Horrez gain, hiru euskal hiriburuen ordezkarietako parte hartzea baloratu da, udal-aterpetxeak hirigune horietan baitaude.

Como toda Comisión Permanente Sectorial debe ser paritaria. La representación institucional, se plantea con participantes de Diputaciones Forales (3), EUDEL, Sanidad, Inmigración, Vivienda e Inserción Social. También se valora la inclusión de representantes de las tres capitales vascas por ser en estos espacios urbanos donde existen los albergues municipales.

Gizarte-aldeari dagokionez, hurbiltzeko lehenengo saio bat egin da Hiesaren aurkako Batzordearekin, Emausekin, Caritasekin, Bizitegirekin, Raisekin eta Lagun Artearekin. Hamaika erakundek parte hartzea nahi da.

Con relación a la parte social, se ha realizado un primer encuentro de aproximación con Comisión Antisida, Emaus, Cáritas, Bizitegi, Rais, Lagun Artea. Se pretende la participación de hasta once asociaciones.

Harresiak Apurtuz sartzea baloratu da, beste erakunde batzuk bildu, integratu eta koordinatzen dituelako (adibidez: Munduko Medikuak).

Se valora la inclusión de Harresiak Apurtuz porque agrupa, integra y coordina a otras asociaciones. (ej: Médicos del Mundo).

LAB sindikatuko Mercedes Gómezek beste sektore batzuen parte-hartzea eskatu du, esaterako sindikatuak eta emakumezkoen elkarteren bat. Bestela, Batzordearen izaera asistentziala bakarrik izan

Mercedes Gómez, del Sindicato LAB, reclama la participación de otros sectores, así el sindical o alguno específico de mujeres. De lo contrario, el carácter de la Comisión puede resultar excesivamente asistencial.

daiteke.
Proposamena onartu egin da.

Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Ruizek proposatu ditu Askabide, Gizarterako edo Bizkaiko emakume prostituten erakundea, batzordekide posibleak izateko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Alvaro Marcosek ongietorria ematen dio Batzorde honi eta informazio handiagoa eskatu du osaerari, funtzioei eta abarri buruz.

EUDELeko Dorleta Goiburuk galdetu du zein izango den udalen parte hartzea. Ez da ahaztu behar aterpetxeak dauden hiru euskal hiriburuak EUDELen barruan daudela. EUDELi dagokio erabakitzea zein diren ordezkaritza handiena dutenak.

Gizarte Ongizateko zuzendaria den Ángel Baoren iritziz, Batzordeari eman nahi zaion balioa gehiago dago edukiari begira kopuruari begira baino. Ikuspuntu honekin bat egonik, ez dago arazorik EUDELek erabakitzeko bere erakundea osatzen duten udalerrien artean zeintzuk duten ordezkaritza handiena.
Euskal Autonomia Erkidegoko Pentsiodunen eta Erretirodunen Probintzia Elkarteetako Federazioko Javier Aldayk zalantzan jarri du batzorde hau sortzea, Gizarteratze Batzorde Iraunkor bat badagoelako eta batak bestearen eginkizunak har ditzakeelako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko Juan Carlos Solak bat egin du aurrekoarekin eta adierazi du ez duela ondo ikusten zertan bereizten den Gizarteratze Batzorde Iraunkorretik.

Batzorde hau Gizarteratze Batzorde Iraunkorrekin alderatzeko eskatu du.

Gai hauek ikuspegi zeharkakoago batez aztertzeko eskatu du.

Ángel Baok arrazoitzen du Batzorde bien arteko lotura zeharkakoa eta bateragarria dela, batez ere zerbitzuei (Pasadizokoen eta sabairik gabekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala) baliabideei eta prestazioei (Gizarteratze Batzorde iraunkorra) dagokienez.

Batzorde honen egiturari dagokionez, osaera erabakitzeko denbora gehiago eskatu da, eta azpimarratu da Saila irekia dagoela parte-hartzeko edozein eskabidetara.

Se acepta la propuesta.

Blanca Ruiz Ungo, del Centro de Información de la Mujer, del Niño y la Niña, propone a Askabide, Gizarterako o a la organización de mujeres prostitutas de Bizkaia, como posibles integrantes de esta Comisión

Alvaro Marcos, del Consejo de la Juventud de Euskadi, da la bienvenida a esta Comisión y solicita más información en lo concerniente a su composición, funciones, etc.

Dorleta Goiburu, de EUDEL, pregunta sobre cuál será la participación municipal. No hay que olvidar que las tres capitales vascas, en las que se ubican los albergues, están representadas en EUDEL. Corresponde a EUDEL decidir qué entidades son más representativas.

Ángel Bao, Director de Bienestar Social, opina que el valor que se quiere dar a esta Comisión es más de contenido que numérico. Estando de acuerdo con esta concepción, no hay problema en que sea EUDEL quien decida sobre la representatividad de los municipios que se integran en su Asociación.

Javier Alday, de la Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco, cuestiona la creación de esta Comisión por existir una Permanente Sectorial de Inserción con la que puede solaparse en sus funciones.

Juan Carlos Sola, de la Confederación Coordinadora de Disminuidos Físicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se aúna a esta exposición y dice no tener muy clara la distinción con la Comisión Permanente de Inserción.

Solicita contrastar la creación de esta Comisión con la de Inserción.

Reclama abordar estos temas desde un enfoque más transversal.

Ángel Bao argumenta que la relación entre ambas Comisiones es transversal y compatible, sobre todo, desde el punto de vista de los servicios (Comisión Permanente de personas transeúntes y sin techo), recursos y prestaciones (Comisión Permanente de Inserción).

Con respecto a la configuración de esta Comisión, se solicita más tiempo para cerrar su composición subrayando el hecho de que el Departamento está abierto a cualquier petición de participación.

*4. puntua- Herri ijitoaren sustapen osorako Kontseilua eratzeari buruzko informazioa.*

*Punto 4.- Información sobre la constitución del Consejo para la promoción integral del pueblo gitano.*

Dekretu-proposamen hau idatzi aurretik, Gizarte Gaietako Sailburuordetzak gizarte-partaidetzarako mekanismoak bultzatu dira eta bilerak izan dira ijitoen eta ijitoen aldeko erakundeekin, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren aurreko Osoko Bilkuran adierazi bezala.

Con carácter previo a la redacción de esta propuesta de Decreto, desde la Viceconsejería de Asuntos Sociales, se han impulsado mecanismos de participación social y mantenido reuniones con organizaciones gitanas y progitanas que en el anterior Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social se detallaron.

Urte hau amaitu aurretik eratu nahi da kontseilua eta Herri ijitoarentzako Lehen Planaren Zirriborroa idatzi nahi da.

Antes de que acabe este año, se pretende la creación de este Consejo así como la redacción de un Borrador del primer Plan para el Pueblo gitano.

Dekretu-proposamen honen 7.1 d) artikuluak xedatu duenez, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko kide bat joan ahal izango da Osoko Bilkuretara, eta ahotsa izan du baina ez botorik.

Tal y como dispone el artículo 7.1 d) de la Propuesta de Decreto podrá asistir a las reuniones del Pleno, un miembro del Consejo Vasco de Bienestar Social, designado por el propio Consejo, con voz pero sin voto.

Gipuzkoako Gizarte Laneko Diplomatuen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialeko Miren Amilibiak proposamena egin du, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua Kontseilu horretan ordezkatzeko.

Miren Amilibia, del Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Gipuzkoa, eleva la propuesta de representar al Consejo Vasco de Bienestar Social en este Consejo.

Bere ustez, ordezkaritza hau gizarte-hezitzaileei zabaldu behar zaie.

Entiende que debería hacerse extensiva esta representación a los educadores sociales.

Edonola ere, Kontseilukide batek bakarrik parte har dezakeenez, eta horrek gizataldea ezagutzean gain, izaera orokorra izan behar duenez, bere burua aurkeztu du zeregin honetarako (ondo baino hobeto ezagutzen du Zumarragako errealitatea, talde honen presentzia nabarmena duena).
Ángel Elíasek eskertu egin du proposamena.

Sin embargo, siendo así que sólo puede participar un miembro del Consejo, con carácter globalizador y cierto conocimiento de este colectivo, se autopropone para este cometido (conoce a la perfección, la realidad de Zumárraga, con fuerte presencia de este colectivo).

Ángel Elías agradece esta proposición.

Sindikatuei dagokienez, LABeko Mercedes Gómezek uste du Batzorde hau eratzeak lagunduko lukeela zubiak egiten, talde hauetako pertsonak lanera daitezen.

Desde la parte sindical, Mercedes Gómez, de LAB, considera que la constitución de este Consejo serviría para abrir puentes a la integración laboral de estos colectivos.

Ángel Elíasek adierazi du sindikatuen ordezkariak joan ahal izango direla Kontseiluaren bileretara, informazioa edo aholkua emateko.

Ángel Elías concluye que la representación sindical podrá asistir a las reuniones del Consejo a efectos informativos o de asesoramiento.

*6. puntua- Kontseiluak hobeto funtzionatzeko ekimenei buruzko informazioa.*

*Punto 6.- Información sobre iniciativas para mejorar el funcionamiento del Consejo.*

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren funtzionamenduaren araudia onartzen duen Aginduak ezarri du Osoko Bilkura urtean behin bildu behar dela; hala ere, asmoa da urtean bi bilera egingo direla bermatzea.

Si bien la Orden por la que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social establece que el Pleno se reunirá, preceptivamente una vez al año, se pretende garantizar la celebración de dos reuniones anuales.

Ondokoei buruzko informazioa instituzionalizatu nahi

Se quiere institucionalizar la información relativa al

da: Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurari buruzkoa, Batzorde Iraunkor Sektorialei buruzkoa eta beste foro batzuei buruzkoa (inmigrazioa, herri ijitoa, irisgarritasunaren euskal kontseilua).
Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 17. artikuluan ezarri bezala, Eusko Jaurlaritzari igorriko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko txostena (ondoren, Jaurlaritzak horren berri emango dio legebiltzarrari eta Gizarte Arazoetarako batzordean eztabaidatzeko proposatuko).

Era berean, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren barne-funtzionamenduaren araudia aldatu nahi da, batez ere osaerari dagokionez (Jaurlaritzan bertan, sailen egitura berriek hala eskatzen dute) eta funtzionamenduari dagokionez (izaera dinamikoagoa eta parte-hartzaileagoa emanez).

Consejo Vasco de Bienestar Social tanto del Pleno, de las Comisiones Permanentes Sectoriales como de otros foros: inmigración, pueblo gitano, Consejo Vasco de accesibilidad.

Tal y como prescribe el artículo 17 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, se va a proceder a la remisión al Gobierno Vasco –quien dará cuenta al Parlamento y será propuesto para su debate en la Comisión para Asuntos Sociales– del informe sobre la situación de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma Vasca.

Se pretende asimismo, modificar el Reglamento de funcionamiento interno del Consejo Vasco de Bienestar Social, particularmente en lo relativo a su composición (ya sólo a nivel de Gobierno, las nuevas estructuras departamentales aconsejan este cambio) y funcionamiento (darle un aire más dinámico y participativo).

*1. puntua.- Aurreko bilkurako akta onartzea.*

Gizarte Gaietako sailburuordea den Ángel Elíasek erreparatu dio aktan oker dagoela bileraren data.

EUDELeko Maribi Rotetak ohartarazi du EUDELek bileran esandako guztia ez dela jasotzen aktan. Eskatu du hurrengo aktetan, transkribatzeko ahalegin handiagoa egiteko.

Iruzkin horiek eginda, aho batez onartu da.

Eta besterik ezean, 13:25ean amaitu da bilkura.

*Punto 1.- Aprobación del acta de la sesión anterior.*

Angel Elías, Viceconsejero de Asuntos Sociales, repara en que en el acta figura una fecha incorrecta de celebración de la reunión.

Maribi Roteta, de EUDEL, observa que no se contiene en el acta todo cuanto EUDEL dijo en la reunión. Solicita que en próximas actas, se haga un esfuerzo de transcripción mayor.

Hechas estas observaciones, se aprueba por unanimidad.

Y sin más trámite, se da por finalizada la sesión a las 13:25 horas.

SECRETARIA
IDAZKARIA

VBº EL PRESIDENTE
PRESIDENTEAREN ONIRITZIA